

Kapitalismo asegaitza

TROIKAK ATENASERA BIDLITAKO ADITUEN MISIOAK –Europar Batzordeko, Europako Banku Zentraleko eta Nazioarteko Diru Funtsoko kideek osatua– Greziako Gobernuari gomendatu dio lan merkatua sakon malgutu dezala. Malgutasun horren barruan sartzen da kaleratzeko kostuak gutxitzea eta lan astea bost egunetik sei egunera luzatzea. Adituen txostenak dio, hainbat neurri hartu beharko lirakeela, hala nola kontratazio kostuak merkatu eta lan egutegiak malgugotu. Malgutasuna eskatzen dute, hain zuzen, Atenaseko gobernuarekin negoziatzen ari direnean 11.600 milioi euroko aurrezpen plan bat.

Troikak ordezkutatutako kapitalismoa asegaitza da. Ongizate estatua desegiten ari dira Grezian eta Portugalen, hemendik aurrera baita Espainian eta Italian ere. Herritarrek lanaren esklabo bihurtzen dituzte; babesgabetasun soziala, prekarietatea eta pobrezia zabaltzen dute; eta bankuak lotsarik gabe garbitzen dituzte diru publikoz. Grezian gertatzen ari dena, kapitalismo horrek Espainiako Estatuan egin nahi duena da. Kapitalismo basati eta asegaitzaren benetako ikurra den Merkelek joan den astean Madrilera egindako bisita, bere lagun Rajoyren ondoan esandako hitz hutsaletatik harago, testuinguru horretan kokatu behar da. Erreska-teak ez dira egiten herri sektoreei eragiten dieten ordainik gabe. Eta bitartean, hazkunde ekonomikoa sortzeko politikarik ez dugunez, langabezia ikaragarri handitu da; pobrezia, prekarietatea eta bazterketa sozialaren gisan. Pentsionistei ere sarrerak murriztuko dizkiete. Arrazoiak soberan daude kaltetutako herritarrek, gehiengo sozialak, gogor erantzun dezaten Hego Euskal Herrian irailaren 26an egingo den greba orokorrarekin. ■



Juan Mari Arregi

‘Enpresarean’ azoka, Donostian, urriaren 2an

BAI EUSKARARI Ziurtagiriaren Elkartearen proiektua da Enpresarean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Donostiako Udalarekin batera kudeatzen du. Lehenengo aldiz, azoka antolatu dute urriaren 2rako, Donostiako Kursaal Jauregian. Enpresarean asmoa, baita azokarena ere, arlo bereko edo beste arlo batzuetako enpresak harremanetan jartzea da; jakintza eta esperientziak trukatzeko, hornitzaile berriak aurkitzeko, eta azken finean, elkarlana bultzatzeko. Enpresek baina, elementu bera elkarbanatu beharko dute, alegia, euskaraz lan egin eta

euskaraz ekoizten dutenak beharko dute izan. Enpresareanen bitartez, enpresei negozio aukerak handitzen lagundu nahi zaie. Oraindik euskaraz lan egin edo zerbitzuak euskaraz eskaintzen ez dituztenek ere atea zabalik izango dituzte, hain justu haien nahia euskaraz lan egitea edota zerbitzuak euskaraz eskaintzen hastea bada.

Azokan, enpresen arteko elkartrukeaz gain, hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailerrak izango dira.

Informazio gehiago helbide honetan: www.enpresarean.org ■

19.720.000 euro euskaltegi pribatuentzat

EUSKO JAURLARITZAK 2012-2013 ikasturterako 19.720.000 euroko partida onartu du euskaltegi pribatuentzako eta zentro homologatuentzako. Iazkoarekin alderatuz gero, %4,9ko murrizketa izan da. Kopuru osoa honela banatuko da: 16,6 milioi euro euskaltegira joanez ematen diren ikastaroetarako; 1,1 milioi euro euskaltegietan norberak

bere kasa ikasteko eskaintzen diren ikastaroetarako; 620.000 euro barne-tegietarako; eta milioi bat euro eta 400.000 euro, hurrenez hurren, administrazioarekiko hitzarmenen arabera taldeak eskolatzen dituzten euskaltegietarako.

Iraila izaki, euskaltegiak hasi dira matrikulazio kanpainak egiten ikasturte berrirako. ■

Bahea

Bea Salaberrik pasiorik gabe hizkuntza politikaz lanean aritzeaz Han eta Hemen blogean esanak:

“HAINBAT LAN eta hausnarketa burutu dira, usaiako gaiez, lurralde kolektibitatea, euskara eta abar baina ez betiko jendeen artean. Izan ere, hainbat partaide lekukoak badira ere, ez dira usaian busti direnak gai horiekin. Oroz gainera, aditu batzuk egon dira ere. Euskal Herrikoak ez diren jendeak, eta gai hauekin ez dutenak deus inplikaziorik ukan orain arte. Inteligentzia bateko kide dira, gai horiez badakite eta beren lana xuxen eta gardena izan da. Bakar batzuk izendatzeko: Massias, lege mailako aditua; Puren, didaktikalaria; Carcassonne legelaria.

Orain arte hegoaldeko jendearengana itzuli gira naturalki eta kasik eskusiboki. Beti lagungarria eta argigarria izan zaigu. Baina pasio askorekin gertatzen da, batetik eta bestetik gure egoerak oso ezberdinak dira. Gure kulturak eta egiteko moldeak ere...”. ■